

ONDARROA. Zenbat Gara alkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu

Nafarroa jaun eta jabe izango da asteburuan

Herriko kaleak Nafarroako kultur ekimenen lekuko izango dira bihar; euskaldunek alkar ezagutzea daukie asmoz antolatzaileek

Lore Bengoetxea |

Ondarrutarrek Nafarroako hainbat kultur ekimenez gozetako aukerea eukiko dabe hurrengo orduotan, Zenbat Gara alkartearen eskutik. Antolatzaileek euskaldunek alkar ezagutzea jarrita daukie asmoz.

Antolatzaileek argi ei dauka zer nahi daben. «Euskal Herriko beste hainbat talde zein pertsonagaz hartu-emonetan gagoz helburu argi batez: euskaldunok alkar ezagutzea eta gure hartu-emonak sendotzea, hainbat eta hainbat ekitaldi alkarregezag egiteko», adierazo dabe.

Hori oinarritzat hartuta, ekitaldi ugari gertatu ditue Bilbon eta Ondarroan hurrengo egunetarako, II. Nafar Astea izenagaz. Ondarroari jagokonez, gaur, Petti eta Bide Ertzean ekarriko ditu kontzertura. Egun nagusia biharkoa da: bata bestearen atzetik, erraldoiak, fanfarria, herri bazkaria, dantzaldia eta erromeria izango dira.

Hartu-emonetan

Zenbat Gara alkarteak dionenez, egitaraua antolatzea ez da

HELBURUA

Herrialde ezbardinetan bizi diran euskaldunok alkar ezagutzea da antolatzaileek jarrita daukien asmoa

egun batetik besterako kontua izan. «Aste hau ez da hutsetik sortu, ezpabe urte osoan. Eta, batez be, uda sasoiari Aurizberri, Auritz, Garralda eta inguru horreetako herrietan izandako

jentegaz eukitako hartu-emon estuaren ondorioz», argitu dabe. Izan be, udan Urrobi kanpinean hainbat ekitaldi antolatzen ditue ume eta nagusientzat, bai kanpinean bai inguruko herrietan be. «Hortik sortutako lagun arteko giroa kontuan hartuta hasi ginan, igaz, Nafar Astea antolaten, eta, aurton, estreinako bidar, Ondarroan be ekitaldiak egongo dira», dinoe.

Jenteari parte hartzeko eskatu deusie. «Harrera ona egin deiegun Nafarroako neba-arrebei giro ederrean», esan dabe.

EGITARAUA

URTARRILAREN 24A, BARIKUA
22:30etan: Kontzertua: Petti eta Bide Ertzean.

URTARRILAREN 25A, ZAPATUA
12:00etatik aurrera: Kalejireia egingo dabe, talde honeen laguntzeagaz: Donibaneko Erraldoiak, Lodosako Dantzariak eta Aurizberriko Fanfarria.
14:00etan: Herri bazkaria, Arrigorri Itsas Ostatuan. Joan nahi dabenek 12 euro ordaindu beharko dabe.

17:00etan: Nafarroako Kantuzale Alkarteko Gazteek eta Antsoiko Buhameek dantzaldia eskainiko dabe.

22:30etan: Nafarroa Beherako Ozke taldearen emonaldia.

URTARRILAREN 26A, DOMEKEA
17:00etan: *Olgetan* umeentzako jaiaren barruan Sambhu pailazoaren ikuskizuna prestatuko dabe. Malabarismoa, akrobaziak, monozikloa, kontorsionismoa eta beste gauza batzuk egingo dituela agindu dabe.

AULESTI. Eskulan ikastaroa amaitu dabe

Umeentzako euskal dantza ikastaroa antolatu dau Urzabal guraso alkarteak

L.B. |

Aulestiko Urzabal guraso alkarteak hurrengo asteotako eskaintzearen barri emon dau: umeentzako euskal dantza ikastaroa.

Eskolak hilearen 15ean hasi bazituen be, oraindino izena emoteko epea zabalik dago. Oraingoan 15 umek emon dabe izena euskal dantzak ikasteko.

Beste alde batetik, jakin

eragin dabenez, eskulan ikastaroa amaitu da, eta emotza on-onak lortu ei ditue, ganera. «15 lagun izan ziran eskoletan, eta hainbat gauza egin zituen ikastaroak irauan eban hile bietan. Kintinak, edarreak eta matalezko baldak barritu zituen, eta, horrezaz ganera, kristalezko ontziak, egurrezko paperontziak eta kaxak margotu ditue. Jenteak gustora urten dau», adierazo dabe.

BERRIATUA. Nahi dabenek erabili ahal dabe

Rokodromoa ipini dabe frontoi barruan, jentearen eskaerea kontuan hartuta

L.B. |

Berriatuko Udalak jakin eragin dauenez, rokodromoa ipini dabe frontoian, eta zabalik dago nahi dabenek guztientzat.

Hainbat herritarrek egingo eskaerari erantzunda ipini eben rokodromoa, joan diran Gabonetan. «Hasieran frontoi kanpoan ipintea pensau genduan, baina azkenean ikusi zan hobe zala ba-

rruan jartea», adierazo dabe. Esan dabenez, zaletasun handia dago berriatuarren artean, eta hori aintzakotzat hartuta erabagi dabe kirola egiteko beharrezko azpiegitura eskaintzea.

Hainbat lagun hasi dira erabilten euren zaletasuna asetu nahian «Gogoratu beharra dago nahi dabenek guztiek erabili ahal dabela», nabarmendu dabe Berriatuko Udalean.

MUNITIBAR. Pelota partiduak, txitxiburduntzia, erromeria, DJa eta herri kirolak lotu ditue astebururako

Jose Ignacio Arrieta 'Jai' omenduko dabe San Bizente jaien egitarauaren barruan

L.B. |

Jose Ignacio Arrieta *Jai* herri kiroleko itzaina izango da, aurton, Munitibarko San Bizente jaietako protagonista nagusia, omenaldia egingo deusie eta. Halandaze, ez da herri kirol saiorik faltauko astebururako prestatu dabenek egitarauan.

Bihar, 16:30ean, pelota partiduekin ekingo deusie San Bizente jaietako ekitaldiei. Tarte baten ondoren, 20:30ean, txitxiburduntzia jateko aukerea egongo da, giro ederrean jan be, trikitilariak bertan ibiliko dira eta. Gauean, musika kontuetan, lehengo eta oraingo ohiturek bat egingo dabe. Alde batetik, 23:00etan, Etxabe anaiek erromeria eskainiko dabe, eta, bes-

tetik, gaupasea izango da Mikel Sound System-egaz.

Jai, konbidatu nagusia

Herri kirolek be lekua eukiko dabe San Bizente jaietan, ganera aparteko ekitaldia egongo da. Izan be, Jose Ignacio Arrieta *Jai* itzainak plazak laga ditu aurton, eta omenaldia egin nahi izan deusie herritarrek.

Domekan, 11:30etik aurrera, harri-jasotzaileak (Perurena aita-emeak, Zelai, Zelailuze, Urpe, Aresti, Sarri eta Barinaga) eta gizon probak izango dira (Satzibar-Basaibar Ansolaren aurka).

Jaiagaz jarraitu nahi dabenek, asto probak (Escava, Bilbao, Esparru) eta zaldi probak lotu ditue (Julen Beaskoa eta Txori tabernea).



EGUNKARIA

Domekan, herri proben barruan, Perurena aita-emeak beharrean ipiniko ditue.